

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### **Kontzejuentzako diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2020ko ekainaren 11ko erabakiaren laburpena**

BDNS(Identif.): 515012

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>)

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/515012>)

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Zuiako udalerriko tokiko erakundeak edo administrazio batzarrak.

#### **Bigarrena. Xedea**

Kontzejuaren jabetzakoak diren ondasunetan, edo tokiko parroketan lanak eta inbertsioak egitea, mantenimendu lanak, argiteria publikoa, kultur jarduerak eta jaiak, kaleen eta bideen garbiketa, bideen sarearen mantentze-lanak, kontzejuaren jabetzakoak diren kaleetatik elurra kentzea, gastu orokorrak, ondasunen eta eskubideen inbentarioa, eta jabetzaren erregistroan ondasunen inskripzioa.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

2020ko ekainaren 11n Udal Osoko Bilkurak onartuak.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Partidaren hornidura ekonomikoa 180.000 eurokoa da inbertsio eta lanetarako, 63.000 eurokoa argiteria publikorako, 40.000 eurokoa kaleen garbiketarako, 27.000 eurokoa festetarako, 15.000 eurokoa bideen garbiketarako, 10.000 eurokoa elurra kentzeko, 6.104 eurokoa gastu orokorretarako eta ondasunen eta eskubideen inbentariorako eta 15.000 eurokoa erregistroaren inskripzioetarako.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epeak ondorengo egunetan bukatuko dira: lan eta inbertsioena azaroaren 30ean, argiteria publikoarena abenduaren 15ean, festena, festak egin aurretik, eta, edozein kasutan ere, azaroaren 30ean, bideen sarea mantentzeko lanena ekainaren 29an, elurra kentzeko neguko kanpainarena abenduaren 15an, eta inbentarioarena urte horretako irailaren 30ean.

Dokumentazioa Udaleko erregistro orokorrera aurkeztuko da.

#### **Seigarrena. Beste datu batzuk**

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak [www.zuia.eus](http://www.zuia.eus) orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2020ko ekainaren 11n

*Alkate-udalburua*

**UNAI GUTIERREZ URKIZA**